


BIZITZA LUZE OPAROA

Euskal kulturaren alorrean ondare zabala utzi digun autorea dugu Manuel Lekuona. Gutxienez 75 urte gure jakintz arloei emana, orotariko esparruak landuz, krezioan, ikerketan eta zabalkundean.

Jaiotzez Oiartzungoa zen. Eta jaioterriak eskuarki dakarren kultur altxorraz gainera –euskalkia, memoria kolektibo jakina, egoera sozio-politiko eta abar–, sorterritik jasoak ditu euskal kulturaren hasikinak.

Hogei urte egin zituen irakaskuntzan, Gasteizko Seminarioan (1916-1936). Euskarazko katedra zen berea, baina denetik erakutsi zuen, grekoa eta hebraiera ere bai. Baina artearen eta herri-literaturaren inguruan landuriko gaiek eman diote osperik sonatuena, batez ere *Literatura oral vasca* liburuak.

Beste hogei urte igaro ziren, gerrak Gasteiztik bota eta berriro honantz etorri zen arte (1936-1956). Lau urte egon zen Lasarteko Brijiden kaperau-etxean ezkutaturik; eta hamalau



Calahorran, erbesteratua, bi lekuotan histori lanetan ihardunez, besterik ezean.

Ia hogei dira Andoainen igarotako urteak ere (1956-1975). Zabalkunde-urteak, hiru erakunderen barruan arituz: Liturgi itzulpenetan, Euskaltzaindian, eta "Kardaberaz Bazkuna" taldean, idazle-eskolan eta argitaratze-lanetan bere ekarria opaz.



Azkenik, berriro Oiartzunen, Idaz-lan *Guztiak* argitaratzeko prestatzen, eta zabalkunde-lanetan. Ez zen geratu eritasuna etorri arte. Eta gaixorik 45 egun egin zituen, harik eta 1987ko Uztailaren 30ean Jainkoak eraman zuen arte.

2 Erialdiak erialdi, osasun onekoa izan zen. "Lepezurrik hautsi gabe" aritzen zela lanean, esango zuen berak; baina langile aspergaitza zen. Eta azkarra, gainera, lan-erritmoan: gauzak txukun, ahalik eta zehatzen, baina luzapenetan luzatu gabe. Bestalde, disziplina handikoa zen bere produkzioan: mintzaldi oro idatzia, eta argitaratzeko prestatua eramaten zuen; eta hitzaldia eman bezain laster non edo han argiratuko zuen. Disziplina hori zuzen eta gogor betez.

Hiztun atsegina: memoria harrigarria gauzak gogoratzeko, eta esaldi apainak, euskaraz, nahiz erdaraz. Irakastea oso gogoko zuen. Eta batez ere erakutsi zuen, nola gaur egungo gizon kulturduak hemengo kultura bizi dezakeen, bertatik hasiz, kultura unibertsalera zabalik, eta bertara berriro itzuliz, kulturaren ziklo osoa bizi ere.

LAGUNARTEKO GIZONA (1916-1936)

Irakaskuntzan ari zelarik, eta Seminarioko bizikidetzan bizi, oso jakina du orduko lagunartea. Aldian aldian biltzen ziren, gaiak eguneratzeko eta idaztortza zorrozteko bildu ere, A. Pildain, Canarias-ko Gotzaina izango zena, J. M. Barandiaran, L. Arabiotorre, J. M. Arizmendiarieta eta M. Lekuona. Batzarre hauek badute zerikusirik Seminarioko ikerkuntzetan, aldizkarietan eta polemiketan. Talde honetaz aparte, E. Eskartzaga erretorearen albora bilduriko irakasle taldea aipatzekoa litzateke.

Gasteizko Seminarioko nagusiekin (1935).



Bertako ikasleekin ere harremana bazuen. Literatur saila aipatzekotan, eta "Olerti" Saria irabazi zutenetan, F. Etxebarria, F. Loidi, D. Jakakortajarena, I. Otamendi, A. Sukia, besteak beste.

Apaizgaien mundutik kanpo, RIEVerako ditu bere idazlanak, Euskaltzaindiaren babesean hasten du Arabako umeteria euskalduntzeko kanpaina, eta bertsolari-txapelketen giroan osabetetzen du oralismo-lana, teori eta praxi mailan. Metodologiaren aldetik begirune guztizkoa zion J. Urkixori, miresmena lanaren aldetik R. M. Azkueri, eta praxi eta antolabide-mailan aitormena "Aitzol"i.

Literatur kreatzaile zen aldetik, aldi desberdinetako olerkariak zituen bidelagun: Jautarkol, Satarka, Orixe, Zubigar, Zugasti eta abar. Baina ez gutxiago antzerti-alderdikoak, hala nola T. Alzaga, Barriola, A. Labayen, Carrasquedo Olarra, eta gainerakoak. Olerkari eta antzerkigile bezala eginik zuen M. Lekuonak bere ibilpidea.

GERRAONDOKO LAGUNARTEAK

Gerra amaitu zenean, hemendik 200 kilometrotara aldegin beharreko zigorra eman zioten, eta berak Calahorra hautatu zuen erbesterra. Nahiz eta oporretan Lasartera etorri, ez bide zuen lagunarte zabala edukitzeko erarik.

Gero, Andoaingo urtealdian, oso besterik izan zen. Eta izen denak aipatzerik ez badago ere -eta ikaskuntzen aldetik begiratuta-, zenbait aipatzea jakingarri gerta daiteke. Euskal kulturaren oro har, Manuel Laborde izan zuen lankide eta azterketari-laguna, hainbat azterren bertatik bertara elkarrekin haztatuz eta



Aldizkaria, lantaldea zen (1935).

4 ikertuz. Histori mailan Fausto Arozena eta A. Mañarikua ere oso hurbileko apoioak zituen gaiak arakatze-lanetan. Eta artelanetan, berriz, A. Arrazolarekin eginiko ikerkuntzak, Gipuzkoako Ernazimenduari buruz.

Taldeko gizona ere bazenez, Euskaltzaindian eginiko lana ere hor legoke. Axularren "Gero" liburuaren 1954eko argitarapena paratu zuen. Eta euskaltzainburu ere izan zen 1967-1970 urtealdian. Orduan egin zen Arantzazuko Batzarrea, euskara batuaren arazoa aztergai harturik. Lekuona izan zen mahaiburu hiru eguneko batasun-batzarre hartan. Ondoren etorri ziren liskarrez kezkatutik, "Nere kontu ematea" aurkeztuz bukatu zuen erakunde horretako lehendakaritza.

"Kardaberaz Bazkuna"ren inguruan bilduriko taldea ere aipatu beharra legoke. Erakunde honek Gasteizen izan zuen bere hasiera, "Academia de Kardaberaz" zeritzan hartan. "Apaiz eta apaizgaien artean euskal idazleak sortu eta idazten trebatu" asmoz hasia zen lantalde hau. Gerora, urteen buruan, euskararen egoera bere onera etorri zenean, Seminarioan kardaberaztar izan zirenak ere beren idazlanak agertu nahian hasi ziren. Eta horretarako, idazle eskola bat prestatu zuten Donostian, eta argitaletxe bat eraiki ere bai, beren beharrei erantzuteko. Manuel Lekuonak idazle-eskolan bere ikasgaiak aurkeztu zituen, eta argitaletxe horretan argitaratu bere *Idaz-lan Guztiak*.



Kardaberaz Bazkuna:
Omenaldia (1977).

MAISUGO ZABALA

Ezer bazen eta, irakaslea genuen Manuel Lekuona. Azken urteetan, ikastolako umeak askotan joaten zitzaizkion galderak egitera, eta berak gogo onez hartzen zituen guztiak, pazientzia osoan gauzak erakutsiz. Eta herriarekin ere gauza bera egin zuen.

Andoainen eta Oiartzunen betetzen du gehienik eginkizun hau: hitzaldiak eman, hartaz eta hontaz. Mendeurrenen bat ospatzen zela, kultur ihardunaldiak zirela, omenaldiren bat zela, argibide jakingarri eta gustagarririk ere emango zuen historiari, literaturari, arteari eta euskarari buruz. Hain gogoko zuen maisutza-lana herriz-herri eginiko txangoetan bete zuen, katedrarik gabe.

Ahozko literaturan merezimendu berezia aitortu zaio beti. Aparteko mundu bezala agertu zuen, eta disziplina jakin batez aztertu eta balioztatu beharrekoa. Herri-literaturaren ezaugarriak markatu zituen. Generoak bereizi eta finkatu, batez ere poesi alorrean. Eta testu-azterketa hasi ere bai, oraindik inork gutxik erabiltzen zuen garaian.

Eragin handia izan du euskal oralismoan; ez bakarrik gauzen ezagutzan, baita herri-literaturaren promozioan ere. Literatur politikan izan du eragina eskuarki, zer esanik ez tradiziozko emanaldietan, eta bereziki bertsolaritzaren eta teatroaren sustapen berrian.



Bertsolariek egindako omenaldian (1979).

"Euskeraren problema, Europa'ren problema izango da beti; Gizadi osoaren problema...
'Onu'ren eta 'Unesco'ren problema dala esan bait dezakegu, eta Internacional
guztien problema, Giza-kulturaren problema sakon eta miña dan ezkeru"

Artelanen maitale

Herri-literaturan distira berezia bazuen, ez gutxiago agian arte plastikoen ezagutzan. Fausto Arozenak "expertizaje artístico" aitortu ohi zion horretan du bigarren aitormen betea.


Gasteizko Seminarioan *Arqueología Sagrada* erakusten zuen. Bestalde, Mateo Mujikaren ikustaldi pastoraletan

idazkari izanik, parroketako artelanen ikuskaritza berak betetzen zuen, obrak lekuan lekuan ikusiz eta ikasiz. Eta iritsi zen bi "Greco" eta "Divino Morales" bat aurkitzera. *Arte-izti* traktatu antzekoa ere idatzia du, bere ikuspegi zorrotza eta aberatsa ematen digula, pentsamoldearen hari nagusiak aurkeztuz. Itzal handiko iritzia zuela aitortzen da arte-gaietan.

Haur-pedagogiaz arduratua zen Lekuona (1933).



Lekuona, Artearen irakasle.



Literatur lanak

Teatrogile, poeta eta prosalari bezala agertzen da. Baina, zehatzago esanik, haur-literaturan, konta-poesian eta saiakeran duela esan daiteke gaitasunik nabariena.

Haur-literaturan *Jesu Aurraren bizitza* (1948) antzerkitxoa, *Txuri eta gorri kikirriki* (1973) ipuinak direla bide, aparteko aipamena merezia duela esan daiteke euskarazko haur-literaturaren historian.

Inork gutxi bezala sentitu ohi zuen kontaerak berekin duen esanahi sinbolikoa eta emozio lirikoa. Eta azkenik, dohain jakingarriak zituen prosa ikasiaren mamikuntza bizi eta ederrerako.



Gerraondoko lehen liburu literarioa (1948).

HISTORIA ETA ETNOGRAFIAREN IKERTZAILE

Oso gazterik hasi bazituen ere historilarien ikerketak, gerrako gertakariak badute zerikusi histori arloa aukeratzeko orduan. Lasarten ezkutaturik zegoenean, eta Calahorrako erbestealdian, artxiboak izan ziren bakarrik bere langai. Eta historiara lerratu zen bere apeta.

Lekuan lekuko histori alderdiak ikertu eta argitara ematen zituen. Horrela, Lasarten zegoenean, bertako parrokiaren eta konbentuaren kondairak burutu zituen. Eta berdin jokatu zuen Calahorran, hango elizen historiak idatziz.



M. Laborderekin, landa-lanetan

Del Oyarzun antiguo (1959): gerraurrean hasi, baina azken eskua Andoainen eman zion berak idatzi duen histori lan luzeenari.

Aldarrikatu zuen zeinen beharrezkoa zen histori ikaskuntzak zientzia lagungarriez osatzea, hala nola etnologiaz, gizarte erakundez, adbokazioez, monumentuez eta abarrez.

Etnografi ikerkuntzak ere jaioterrian hasiak zituen. Beti landu izan du etnografía arlo hau. *Anuario de Eusko-Folklore*-n ditu hasierak. Hala ere, badu oso berea duen gairik arlo honetan: erakundeak, bideak, artzain eta nekazari kultura, ihauteak, santuteria, foruak, jaiak, etxebizitza, ele-zahar eta abar.

Folklore-jakintza herri-zientzia zen beretzat, eta folklore-hitzak dakarren muzinkeri eritzia ere gainditu behar zela zioen, oso errespetagarri denez.

Bere *Idaz-lan Guztiak*, 2.tomoa, gai honi eskainirik dago. Lekuko aparta ezezik biltzaile eta gordetzaile ona ere izan zen etnologi gauzetan. Jakintz iturri munduan oparo erabili izan zuen lan-metodo eran etnologia.



Artxibategietako lanetan.

Poeta

Konta-poesia du ezaugarririk aipagarriena olercian. *Gerrateko nere amairu kantak* eta "Oleri"ren inguruneko poesiek osatuko lukete bere emaitzarik onena.

Egileak berak esaten ohi zuenez: "narratibatik kanpo ateratako poesiak eskutik erortzen zaizkit". Lekuona Zaharrak gutxi bezala bizi eta sentitu

ohi du kontaearen egiturak berekin duen esanahi sinbolikoa eta emozio lirikoa. Eta alderdi hau aipagarria dela jotzen dugu, konta-poesiarako ez gustorik eta ez jakintzarik dagoen une honetan, bai bertsolarietan eta bai olerkietan horrelako teknika oso gutxi erabiltzen diren garaian.

"Zigor"en operaren libretoa (1963).



Antzertia

Euskal Literaturaren historiari buruzko eskuliburutan *Eun dukat* (1935) antzerkia da gehienik aipatzen dena. Baina hor dago, baita ere, *Zigor* operaren libretoa, lan arretagarria, noski, hitzezko kalitateari begiratzan badiogu.

Eun dukat, saiakera jakingarria gertatzen da musika aldetik, pasarterik nagusienetan zartzuela eitea hartzen duenez, orduko koru ederrez baliatu asmoz tankera hori ematen zaiola.

Zigor-en, bitxi-lan finetan, azaldu digu bere esku ona: hitz-neurturako duen sena, tradiziozko poesi moldeen ezaguera, euskal bizitza eta adierazteko dituen baliabide sakonak.



Antzerti-jendearen artean (Pagola, 1982).



Saiolaria

Aipagarria deritzogu bere prosagintzari, askoren eritzian estilo berezi eta egokian landua dagoenez.

Besteak beste, artegintzari buruzko idazlanak azpimarratuko genituzke: bai "Egan"en eta "Euzko-Gogoa"n erreportai modura argitaraturiko saioak, bai bere "Arte-izti"n agertzen diren orrialdeak, batez ere, estetikari buruz taxaturikoak.

Bere ikusmoldea euskaraz ematerakoan, saiatu da euskara aseptiko eta egosgaitzari ihes egiten, literatur osagai askoren sintesia eskaintzen. Eta bere prosagintza oso berezia gertatzen bada ere, ez daitezke uka dituen argia, ederra eta ona.

Tokian tokiko Historia.



Bertso-ikertzaile

Alor honetan bi aldi ditu emankorrenak: Gasteizkoa eta Oiartzungo azken denborakoa. Gutxienetariko bat dugu bere garaian, testu-azterketa aritu zirenen artean.

Genero nagusienak sailkatzeaz gainera, berauen literatur xehetasunak ere agertu eta egoki finkatu zituen, zenbait alderdi estetiko, hala nola dekorazio-olerkiarena, koplarena eta bertsolaritzarena, oraindik ere benetan estimagarri zaiguna ahozko alorrean.

Poesigintzako arau eta legeak ere zehazten ahalegindu zen, euskal olerki-prezeptiba baten mesedetan. Baina euskal poesiaren ahozkotasanari zuzenduriko ikaskuntzek ez dute, agian,

baliorik txikiena.



Ahozko euskal literaturaren inguruan.

Liturgi itzulpenak

Liturgia berria euskaratzeko Batzordearen buru izan zen. Horretarako prestaera bat eta izen bat ere eman zion, Gasteizen elizbarrutiko euskal itzultzaile izanak.

Lana taldean egiten zen, itzulpen liturgikoa, batek aldeztu aurretik prestatutako testu behin-behinekoak oinarri hartuz. Esaldi zehatz, argi eta biziaren bila bai, baina harik eta euskaldun gehienek erabilitakoen bila baita ere. Zuzenketak Lekuonak jasotzen zituen bere kopian.

Liturgi lanei esker aurkitu zuen bere bizitzaren izateko arrazoirik pozgarrienetariko bat, bere norberezko historiaren zergati sakona. Eta eskaini ahal izan zuen bere laneko eskarmentua, jakinduria eta alderdi gizerakoa.

Liturgi Batzordeko euskal itzultzaileak (1984).



“Gero”

Euskaltzaindiaren ardurapean eginiko argitalpena da, guztiontzako era errazean, Euskaltzaindiaren orduko idazkeran eta ortografian antolatua, euskararen batasunari laguntzeko egin. 1954ean argiratu zen, "Lekuona Apaizak prestatua eta aintzin-solastua", atarikoan dagoenez.

"Gero": klasiko baten berredizioa (1954).



Gramatikaria

Gasteizko Seminarioan euskarazko katedraduna zenez, ordutikoa du gramatika gaietarako prestakuntza. Gai honi berak *Euskeralojia* deitzen dio *Idaz-lan Guztiak-en*, 8.tomoan.

Ale honetan gramatika zehatza baino zabalagoko eremua hartzen du. Eta *didaktika* deituriko zatian, aditzari buruzko ikasgaiak, deikiari buruzkoak (berezi maitea zuen gai honetako bere ikuspegia), eta gainerako gramatika-gai puntualak.

Baina beti ahozko literaturan eta arte-gaietan du distirarik bereziena Lekuonaren kultur ekarriak.

